

Osagarriak arriskuan berriro ere!

LAB eta Steilas sindikatuon lana tartean, 2017ko Osagarrien deialdia berretsi zuen Gizarte Kontseiluak pasa den urriaren 25ean izandako ezohiko bilkuran. Badakizuenez, C tramuak eskatzeko epea laburragoa zekarren deialdiak, urtea amaitu aurretik ebatzi eta urtariletik aurrera kobratzen hasi ahal izateko asmoz, 2015ean eta 2016ean ezarritako dinamikari jarraituz. UPV/EHUren zuzendaritzak, bere aldetik, tramu hauek eskuratzeko eskaera egin duten irakasle-ikertzaileen antzinatasunari buruzko informazioa helarazi zion segituan Unibasq-i, aldeko txostenak presta zitzaizkion zuzenean, inongo ebaluazio-komitetatik ez baitira pasatu behar eskaera hauek. Baina asteon jakin dugunez, **Unibasq-ek adierazi du ez dituela ohiko epeak beteko, zergatik eta Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak desadostasuna adierazi duelako** Gizarte Kontseiluak onartutako prozedurarekin, berau bada ere horretarako eskuduntza duen organo gorena. Aurreko deialdietako dinamika unilateralki hautsiz **tramu hauek aurten ez ebazteak 1.625€ eta 3.750 € arteko diru-galera ekarriko dio eskatzaile bakoitzari. Aurten 279 irakasle-ikertzaile izan dira, EHUn soldata baxuenetakoak dituztenak gainera.** Horregatik ere ohartarazi nahi dugu, erabakiak, eragin ekonomiko hutsez gain, ondorio sozial eta politiko nabariak izango dituela, zeren irakasle-ikertzaileen arteko etena sakondu ez ezik, unibertsitateko instituzioen euren deslegitimazioa ere ekarriko baitu.

Hortaz, batetik, **Jaurlaritzaren jarrera salatu behar dugu: osagarrien deialdia urtero egin behar da, eta Jaurlaritza hura ekonomikoki doitzera behartuta dago, legediak ezarritakoaren arabera.** Jaurlaritzak ez du zertan interferentziarik egin, Gizarte Kontseilua eta Unibasq gisako legez independenteak diren erakundeetan, are gutxiago C tramu berri hauek dakarten ordainketei muzin egiteko.

Bestetik, **Unibasqek hartu duen erabakia ere erabat gaitzesten dugu.** Bere zereginen artean irakasleen lanaren ebaluazio neutrala dago; 13/2012 Unibasqen Legearen 4.2 artikulua esanetan: **“Agentziak, ebaluazio-, egiaztapen- eta ziurtapen-jarduerak betetzean, independentzia eta objektibotasun osoz jardun behar du”.** Eta horrela jardun dezan exijitzen diogu.

Jaurlaritza: Langileen soldatekin jokatzeari ez!
Kalitatezko Euskal Unibertsitate Publikoari bai!